



Gure txikitxo maitea,

Ama, Aita, Amona, Aitona, Izaba, Osaba Herrikidea naiz.

Begira, ez zaitut larritu nahi, baina, entzun mesedez, arretaz, esango dizudanak merezi du-eta.

Hortxe, Zubietan bertan, Errealak entrenatzen duen lekutik oso gertu, Erraustegia egiteko asmoa dute, bertan zaborra eta hainbat hondakin erretzeko. Bertatik aterako den kea arriskutsua izan daiteke osasunerako. Bai, halaxe da, igarri duzu, ezta? Kezkatuta nago, bai, eta batik bat zuengan, haurrongoan, oraindik hazten, garatzen eta osatzen ari zaretenongan sor ditzakeen eraginengatik.

Kezkatuta nago eta ezinegonik:

Erraustegiaren kokalekua bizi garen lekutik oso hurbil dagoelako (15-20 kilometroko eremuaren barruan).

Erraustegiaren kokalekutik hurbil dauden lurretan landatutako barazkiak eta fruituak jaten dituzulako, edo eta, belardi horietan elikatzen diren abereen haragia eta bestelakoak jaten dituzulako.

Horren ondorioz kutsatuko den itsasoan bainatuko zarelako.

Edota, nahiz eta gure bizilekutik urrun egon, ez nukeelako nahi inoren hurrek ondorio kaltegarri horiek jasaterik. Nire haurrentzat nahi ez dudana, inoren haurrentzat ere nahi ez dudalako.

Horregatik, lehenbailehen, zerbait egin behar dudala pentsatu dut: arrisku horretatik babestuko zaitut, maitea, zin dagizut!! Ez dut onartuko, inondik inora ere, haurren osasuna arriskuan jartzetik! Ez nioke, inolaz ere, nire buruari barkatuko, nire esku dagoen guztia egiten ez badut, gutxi bada ere.

Erabaki dut beste guraso, aitona-amona eta senideekin batera bilduko naizela eta denok batera, elkarrekin, lan egingo dugula, erraustegiaren arriskua gaintetik kentzeko.

Zaude ziur: begiratu bi begietara, sinetsiezadazu, ez dizut hutsik egingo! Erraustegiaren proiektua geldiarazten saiatuko naiz!

Badakit, gure hondakinen arazoari beste irtenbide bat bilatuko diogula denen artean, posible delako, gizarteak eta gure ordezkariak horretan buru-belarri jarri nahi badute behintzat, gure osasuna eta ingurumena arriskuan jarri gabe!

IZEN ABIZENAK	
NAN	
UDALERRIA	
HAURRAEN IKASTETXEAREN IZENA	

DATU PERTSONALEN BABESERAKO OHARRA

Datu hauek GURAS.O.S.ek Zubietan eraikin nahi den erraustegiaren aurrean egiten ari den kanpainan erabiltzeko jasotzen dira. Sinatzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen du eta aipaturiko helburutarako baita lagatzeko ere. Atzitzeko, zuzentzeko, ezereztzeko eta aurka egiteko eskubideak www.gurasos.org web gunearen aurrean gauzatu daitezke.

IZENPETUTA: